



Barakaldo
CIUDAD·HIRIA



PRENTSA OHARRA

Barakaldon, 2020ko urriaren 1ean

BAFFESTen V. edizioak Emakumeek egindako argazkiekin beteko du Barakaldo

- *Urriaren 1etik 31ra, herriko hainbat gunetan, izango dugun hitzorduak, Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien 2020ko Lehiaketa eta Sekzio Nagusia jasoko ditu.*
- *Covid-aren ondorioz, edizio honetan 8 finalistek ezingo dituzte euren lanak kalean aurkeztu eta urriaren 31an Clara Campoamor kultur etxean egingo den saio pribatuan defendatuko dituzte epaimahaiaren aurrean.*
- *Sekzio Nagusian, "Belaunaldien arteko zubiak ehuntzen" izenburupean eta Miren Pastor komisarioa dala, Colita kataluniar argazkilari beteranoak, Laura Sillerasek, Helena Goñik eta Maria Sturmek (nazioarteko ordezkaritza) hartuko dute parte.*
- *Aurten, BAFFESTek jarduera paralelo ugari ditu, Argazki Eguna, Argazki Solidarioa, haurrentzako tailer digitalak eta bisita gidatu presentzialak, besteak beste.*

Barakaldoko Udalak Fotopop Producciones Culturales-en eskutik bultzatutako BAFFEST Argazki Jaialdiaren V. edizioak, emakumeen zigilua duten argazki onenez beteko du udalerria gaur hasi eta urriaren 31ra arte. Herritar guztientzat ezinbestekoa den eta emakume argazkilariak protagonista nagusi dituen hitzordua, Euskadin jaio edo bizi diren emakume argazkilariari zuzendutako Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien Lehiaketak, eta Sekzio nagusiak osatzen dute.

Amaia del Campo Barakaldoko alkateak; Begoña de Ibarra Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusiak; Miren Pastor Sekzio Nagusiko komisarioak; Nagore

Legarreta Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien Lehiaketaren arduradunak; eta Laura Silleras, Aitziber Orkolaga eta Helena Goñi argazkilariek aurtengo edizioaren xehetasunak azaldu dituzte, Bide Onera Plazan komunikabideekin egin topaketan. Prentsaurrekoa amaitzean, "Belaunaldien arteko zubiak ehuntzen" izenburua duten Sekzio Nagusiko erakusketak bisitatu dituzte, hainbat argazkilariren parte hartzearekin: Colita kataluniarra, Bide Oneran; Laura Silleras, Los Hermanos parkean; eta Helena Goñi, Foruen pasealekuan. Aitziber Orkolagaren, Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien IV. Lehiaketaren irabazlearen, erakusketa ere ikusi ahal izango da Hizkuntza Eskolan.

BAFFEST Argazki Jaialdiaren helburua, herritar guztiei argazkilaritza adierazpen artistiko gisa gerturatzea da, herrian eguneroko bizitza egiten den espazio komunetan jarritako argazkien bitartez. Bere lau edizioetan, 45 argazkilarik erakutsi dituzte euren argazkiak Jaialdian, eta ez da ezagutzen estatu mailan soilik emakumeena den beste argazki-ekitaldirik. Hauek dira BAFFESTEK defendatzen dituen balioak: artea eta kultura, emakumea, berdintasuna, irisgarritasuna eta elkarbizitza.

Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien 2020ko Lehiaketako 8 finalistak

Covid-aren ondorioz, BAFFEST Argazki Jaialdiaren V. Edizioa maiatzetik urrira atzeratu zen, hilaren 1etik 31ra, hain zuzen ere, baina berri onekin etorri zen. Izan ere, parte hartzaile kopurua bikoiztu egin zen, guztira, 55 argazkilarik hartu dute parte lehiaketan, eta horietatik 8 finalistak hauek izan dira: María Azkarate, Leire Zabaleta, Yone Estivariz, María Sánchez, Eider Moreno, Maied Urrutia, Miren Barrena eta Ana Martín.

Covid-aren ondorioz, edizio honetan 8 finalistek ezingo dituzte euren lanak kalean aurkeztu eta urriaren 31an Clara Campoamor kultur etxean egingo den saio pribatuan defendatuko dituzte epaimahaiaren aurrean. Egun horretan bertan emango da jakitera zein den irabazlea.

Lehiaketaren helburua euskal artisten argazki-sorkuntza bultzatzea eta ikusaraztea da, eta Euskadin jaio edo bizi diren eta oraindik finkatu gabeko ibilbide artistikoa edo/eta profesionala duten adin nagusiko egileei dago zuzenduta. Aurtengo 55 hautagaiek argazki proiektu bat aurkeztu dute, obra azaltzen duen testu batekin eta biografia batekin batera. Nagore Legarretak zuzendu duen epaimahaiak aukeratu ditu 8 argazkilari finalistak.

Belaunaldien arteko zubiei buruz hausnartzeko Sekzio Nagusia

Sekzio Nagusian, "Belaunaldien arteko zubiak ehuntzen" izenburupean eta Miren Pastor komisarioa dala, Colita kataluniar argazkilari beteranoak, Laura Silleras, Helena Goñik eta Maria Sturnek (nazioarteko ordezkaria) hartuko dute parte. Lanak Bide Onera Plazan (Colita), Foruen pasealekuan (Helena Goñi), Los Hermanos parkean (Laura Silleras), El Regaton (Maria Sturm) eta Hizkuntza Eskolan (Aitziber Orkolaga, otsailetik) egongo dira ikusgai.

BAFFEST Argazki Jaialdiaren V. edizioak argazkilaritza mundua aztertzeko, sentitzeko eta bere egiteko tresna gisa erabiltzen duten egileengan jarriko du arreta. Edizio honetako Sekzio Nagusiak bizitzarekiko kontaktu bizia, berehalakoa eta sentsoriala du abiapuntu, belaunaldien arteko zubi gisa, bizitzaren eta lanaren aldetik egoera desberdinetan dauden hiru argazkilariren begiradaren bitartez. Colita katalanaren (1940), Laura Silleras valentziarraren (1979) eta Helena Goñi euskaldunaren (1990) irudiek euren bultzada subjektibo berezietatik sortzen diren sustraiak dituen argazkiez hitz egiten dute, egile horietako bakoitza hazi den denboraren eta espazioaren kontzientzia sozialari lotuta. Hainbat alderdi moral eta etiko, politiko eta emozional islatzen dituzten hiru adierazpide, munduari eta bertan bizi diren pertsonen buruz duten ikuspegi berezia hilezko bilakatu.

Ikusleak euren bizi-inpresioetatik sortzen diren irudien aurrean jarriko dira. Inpresio horiek izateko moduek iragazitako sentimendu bat iratzarriz transmititzen eta jasotzen dira. Argazkiaren indar eraldatzailearen bitartez irudimen bisuala anplifikatzen duten zatiak dira.

- **Colita (Bartzelona, 1940)**

Colita ezinez ezagutzen den Isabel Steva, Kataluniako argazkilaritza garaikideko egilerik garrantzitsuenetakoa da. Argazkilariak ibilbide oparoa, nortasun handia eta ironia etengabea ditu; gainera, mugimendu feministaren aliatu leiala da. Formatu handian ikusgai dauden 8 irudien aukeraketak bere hiriaren, Bartzelonaren, eraldaketari argazkiak ateratzeko grina du ardatz, frankismoaren garaitik izan dituen aldaketak eta bilakaera agerian utziz, trantsizioa eta demokraziaren etorrera bezalako aldi asaldatuetatik igaroz. Mundu biziaren berehalako behaketa, etengabeko mugimenduan, bertako kaleetan bizi izan ziren ijitoekin, auzo txinatarreko prostitutekin edo Merceko jaiekin, barrutik bizitako bizitza kultural eta sozial aldakorraren isla.

- **Laura Silleras (Valentzia, 1979)**

Bere lanean, Laura Silleras modu konpultsiboan erretratatu du hirigintza-tentsioen ondorioz azken urteotan eztabaida publikoaren jomugan egon den Valentziako Cabanyal itsas auzo tradizionalaren eguneroko bizitza. Michael Enderen *Amaigabeko Istorio*ko "*Beti horrela izatea nahiko nuke– esan zuen mutilak. –Beti une bat baino ez da– erantzun zuen neska*" aipamenean inspiratutako proiektuaren parte diren 10 argazkien aukeraketak sakontasunez transmititzen dute orainaren eta haurtzaroko oroitzapenaren nostalgian arteko hurbiltasun

emozionala. Tentsioz eta protestaz betetako irudiak dira, bere lurrari eta herrixkako biztanleei dien maitasun sakonetik sortuak. Haien aurpegietan eta hormetan grabatuta geratu dira denboraren igarotzearen ondorio itzulezinak. Bere nortasun karismatikoa kontserbatzeko erresistentzia izan arren iraungitzen ari den unibertsoa.

- **Helena Goñi (Bilbo, 1990)**

Helena Goñi, BAFESTEN lehen edizioko Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien Lehiaketaren irabazlea, Sekzio Nagusian sartu da lehen aldiz, eta bere inguru hurbileneko une aldakorrak sortzen dion liluran murgildu da. Argazkilari honen 10 irudiek izaera poetikoarekin erakusten dute bere eguneroko zirkuluaren bizi-erlaketak. Hauskortasun- eta tentsio-kapsulak, aurrez aurreko begiradak, gurutzatzen diren edo eremutik kanpo garamatzaten beste begirada batzuk, horietan guztietan iheskorra denaren denborazkotasuna atzemanek. Bere argazkien barrutik erritmo sentsualean, aurreiritzirik eta pretentsiorik gabe, bizitzaren inperfekzioari buruz hausnartzera gonbidatzen duten eta ia soinuzkoak diren atmosferen berpizte garbia.

- **Maria Sturm (Ploiești, Errumania, 1985)**

"*You don't look Native to me*" aipu bat eta Ipar Carolinako Pembroke, Robeson County inguruan, bizi diren amerikar gazte natiboen bizitzaren zatiak erakusten dituen lan-gorputz baten izenburua da. Bertako biztanleen %89a amerikar natibotzat identifikatzen da. Hiria, Lumbee tribu indiarraren egoitza tribala da, Mississippi ibaiaren ekialdean estatuak onartutako tribu amerikar natibo handiena. Horrek, maila federalean ez daudela onartuta esan nahi du, eta, beraz, ez dute inolako erreserbarik edo diru onurarik.

Egileak, bere burua irudikatzeko historian zehar eraldatu diren moduak, egunero aurre egin beharreko identitate-kontuak eta natiboak izatearen harrotasunetik berriro esnatzea arakutzen ditu. Erretratuak, paisaiak, lekuak, barrualdeak, natura hilak eta egoerak biltzen ditu lanak. Aurkeztutako esparru estetikoak pistak eskaintzen ditu (batzuetan sotilak, beste batzuetan deigarriak), eguneroko bizitzaren sentsazioa transmititzeko.

Bere lanak kontzeptu ezezagunen nahasketa erakusten du: kanpoko munduarentzat existitzen ez diren tribu bateko kideek itxuraz ez dirudite natibo amerikarrak direnik, baina oso nortasun irmoa dute. Argazkien, bideoen eta elkarrizketen bitartez, egitura sozialak eta instituzionalak hausten direnean eta pertsonak euren burua euren baliabideen mende jartzera behartuta daudenean zer gertatzen den ikertzen du. 2011n hasi zen lan honek norberaren nortasunari buruzko eta zalantzan jarritako kultura menderatzaile bateko kide izateari buruzko galderak planteatzen dizkio ikusleari.

BAFESTen V. edizioko jarduera paraleloak

- **Argazki solidarioa, Foto Samar Barakaldon.** Urriaren 1etik aurrera eta hilabete osoan zehar, Iraitz Camiok zuzentzen duen Bilbao Street Collective argazki-kolektiboak ekarritako irudiak eskuratu ahal izango dira Samar dendan, gutxienez 2 euroko dohaintzaren truke. Bildutako dirua Udalak erabakitako helburu solidarioa bideratuko da.
- **Txikifoto, haurrentzako argazki-tailer digitalak.** Urriaren 17an eta 24an, 7 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta, tailer bat euskaraz izango da eta Nagore Legarretak emango du eta bestea, gaztelaniaz, Cristina Calvok emango du.
- **Aurrez aurreko bisita gidatuak Aintzane Rodriguezen eskutik.** Bi euskaraz eta bi gaztelaniaz izango dira, eta plaza mugatuak izango dituzte. Urriaren 3an, 10ean, 17an eta 24an, larunbatetan, egingo dira saioak. Ordu-tegiak, hizkuntzen araberako banaketa eta izena emateko modua sare sozialen eta webgunearen bitartez iragarriko dira.
- **Sare sozialak eta webgunea.** Jaialdiaren berri emango dute minuturo, bideoen eta erakusketen bitartez, aurten Barakaldora hurbildu ezin dutenentzat.

INFO+:

www.baffest.eus

www.facebook.com/baffest

www.twitter.com/baffest_eus

www.instagram.com/baffest.eus